



**Gatikako udala**  
Bizkaia

**2014ko maiatzaren 28ko OHIKO  
OSOKO BILKURAREN AKTA**

**DEIALDIA: LEHENA  
HASIERA ORDUA: 20.06  
BUKAERA ORDUA: 20.24**

**Bertaratutakoak:**

- 1.- Jesus Maria Fullaondo Alzibar
- 2.- Leixuri Arrizabalaga Arruza
- 3.- Maite Lekanda Bilbao
- 4.- Vanesa Alvarez Zorrilla.
- 5.- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga
- 6.- Unai Arruza Elorduy.
- 7.- Unai Arrizabalaga
- 8.- Mikel Larrazabal.
- 9.- Naiara Beldarrain Fullaondo.

Aholkularia: Enrike Valcarcel.  
Idazkaria: Elena M. Gonzalez.

**Aztergaiak:**

**1.- Arteko akteen onarpena.**

2013.01.23 Eskola informazio batzorde, 2013.01.30 Eskola informazio batzorde; 2013.03.06 PGOU informazio batzorde; 2013.05.08 kontu komisio berezia; 2013.07.02 kontu komisio premiazkoa; 2013.12.18 ez ohiko informazio batzorde; 2012.06.21 premiazko osoko bilkura; 2013.10.04 premiasko osoko bilkura; 2012.07.05 PGOU informazio batzorde, 2014.04.02 ez ohiko kontu komisio berezia; 2013.03.06 osoko bilkura eta 2014.04.30 osoko bilkuraren aktak aho batez onartu egin dira.

**2.- Dekretuak.**

<b>2014/50</b>	07/04/2014	Alkatea herritik kanpo izango dala eta, bere ordezkapena jakinarazteko.
----------------	------------	---



## Gatikako udala

Bizkaia

2014/51	09/04/2014	A.B.R. andreari, maiatzak 1ean egun osorako, txokoa erabiltzeko baimena emonaz
2014/52	09/04/2014	N.L.C. andreari maiatzaren 4an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/53	09/04/2014	C. C., S. L. enpresari "Udal-eraikinetako kontu-ikuskaritza energetikoko zerbitzuaren" kontratu txikiaren esleipena.
2014/54	11/04/2014	L.R.C.ri Zurmo auzoan "partzelaren garbiketa eta sasiz garbitze" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/55	11/04/2014	C.R.S.ri Libero auzoan "baserriko laborearen estalki berriztatzea" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/56	23/04/2014	M.G.L.E.ri Ugarte auzoan "baserriaren kontserbazio" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/57	24/04/2014	S.T.M. andreari apirilaren 27an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/58	24/04/2014	2014.ko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen zergaren errolda onartu da.
2014/59	28/04/2014	E.B.A. andreari maiatzaren 25an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/60	29/04/2014	Hurrengoko ordainketak onartu dira.
2014/61	07/05/2014	G.K.T.ari maiatzaren 30ean afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/62	08/05/2014	M.B.A.ri Lubarrietaondo urbanizazioan "etxe margozketa" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/63	08/05/2014	P.L.L.S.eri arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia emoteko.

Ez dute ezer esateko.

### 3.- 59/2014 gizarte Larrialdietarako laguntza.

Aho batez onartu da.

### 4.- "Estanko" bidea jakiteko norena den espedientea irekitzeko akordioa.

#### **"ESTANKO" BIDEAREN IKERKETA HASTEKO ERABAKIA.**

Kontuan hartuta Toki Administrazioetako ondasunari buruzko erregelmeduaren 45-55 artikulua Gatikako udalbatzarrak hurrengo akordioa **ONARTZEN DU:**



## Gatikako udala

Bizkaia

**LEHENGOA.** Frontoi eta udalaren arteko bidea norena den jakiteko expediente irekitzea. Erregistroetan dauden datu eta dokumentazio guztia eskatzea.

**BIGARRENA.** Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu hasiera emoteko akordioa. Udaletxeko iragarki tabloian, 15 egunetan, argitaratzea. Epea amaiturik, hilabeteko epea ematea, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

**HIRUGARRENA.** Haiserako Akordioa, Estatuko Administrazio Orokorrari eta Euskadiko Administrazioari jakinarazi.

**LAUGARRENA.** Alegazioak auzerako epea amaitu ondoren, frogak aurkeztu eta egiteko epea irekitzea, 20 eguneko, ukituei jakinaraztea beharrezkotzat hartzen dituzten frogak erakutsi ditsaten. 10 eguneko epean.

**BOSTGARRENA.** Alkateari baimena ematea, espedientea eta akordio horretan agertzen diren erabakiak aurrera eraman ahal izateko.

Aho batez onartu egin da.

### 5.- Sostenibilidateko txostena.

Enriquek azalpenak emoten ditu. Likidazioarekin batera txosten hau jakinarazi behar zen plenoan. Jakitun geratu dira.

### 6.- Mozioa. Sexu askatasunari eta sexu dibertsitateari buruzkoa.

Aho batez onartu egin da.

### 7.- Eskabide eta galderak.


Ez daude

20.24an amaitu egin da osoko bilkura hau.

ALKATEA

IDAZKARIA

ZINEGOTZIAK



Garai auzoa, 1 - Tfnoa: 94 615 12 01 - Faxa: 94 615 14 90 - 48110 GATIKA (Bizkaia) - I.F.K.: P4804800C

## INFORME SOBRE LA SOSTENIBILIDAD

La Ley Orgánica 9/2013, de 20 de diciembre, de control de la deuda comercial en el sector público en su artículo primero modifica el artículo 4 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, definiendo la sostenibilidad financiera como la capacidad para financiar compromisos de gasto presentes y futuros dentro de los límites de déficit, deuda pública y morosidad de deuda comercial conforme a lo establecido esta ley, la normativa sobre morosidad y en la normativa europea.

Por su parte, el artículo 6.5 de la Norma Foral 5/2013, de 12 de junio, de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Bizkaia, establece que en caso de que una entidad cumpla con el objetivo de deuda y financie gastos con remanente de tesorería siempre que no comprometa la sostenibilidad financiera de la respectiva entidad, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 3, apartado 4, se sustituirá el plan económico financiero por un informe del órgano que ejerza las funciones de intervención, que se elevará al Pleno para su conocimiento. En el citado informe se constarán expresamente tales circunstancias, así como un análisis y evaluación de la sostenibilidad financiera de la correspondiente entidad. No se computarán estos gastos a efectos de valorar el objetivo de déficit y el cumplimiento de la regla de gasto.

El ayuntamiento de Gatika en el expediente de modificación de créditos que se adjunta (Decreto de Alcaldía 42 que aprueba la liquidación 2013) propone la utilización de remanente de Tesorería para la financiación de los gastos en él referidos.

Dado que:

1. El ayuntamiento de Gatika tiene un volumen de deuda sobre ingresos no financieros a 31 de diciembre de 2013 de 22,37%. Inferior, por lo tanto, al 60% fijado como objetivo por la Diputación Foral de Bizkaia para el ejercicio 2014.
2. El ayuntamiento cumple los plazos de pago a proveedores establecidos en la normativa vigente y, a la vista del Plan de Tesorería con que cuenta, la presente modificación presupuestaria no impedirá incumplimientos futuros.
3. Dado que el gasto a financiar por la presente modificación de crédito no compromete la sostenibilidad financiera futura del ayuntamiento, en base a los siguientes argumentos:
  - a. Aunque se trata fundamentalmente de financiación de gastos generales en ningún caso pueden provocar una situación de déficit estructural.
  - b. En cualquier caso, la situación esta solventada con la aprobación del presupuesto para este ejercicio en situación de equilibrio presupuestario y dentro de los límites de variación del gasto computable.
  - c. No tenemos constancia de la existencia de ningún gasto que pueda en el futuro comprometer la sostenibilidad financiera de la Corporación.


- d. La corporación actualmente y una vez deducidos los recursos utilizados en el presente expediente cuenta con Remanente de Tesorería positivo y aprueba sus presupuestos en equilibrio presupuestario, por lo que es de esperar que en los próximos ejercicios su Ahorro Neto y su Remante de Tesorería utilizable se mantenga en términos estables y en cualquier caso positivos.

En definitiva, se puede concluir que la presente modificación presupuestaria no compromete la sostenibilidad financiera del ayuntamiento de Gatika en los términos establecidos por la Ley Orgánica 9/2013, de 20 de diciembre.

En Gatika, a 31 de marzo de 2014



El/la Secretario/Interventor



## Gatika KO UDALAREN MANIFESTUA, SEXU ASKATASUNARI ETA SEXU DIBERTSITATEARI BURUZKOA

2014ko maiatzaren 17an Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako Eguna ospatzen dugu. Gatikako Udalak berretsi gura du diskriminazio afektibo-sexualaren eta genero-identitatean oinarritutako diskriminazioaren aurkako borrokan duen konpromisoa. Izan ere, diskriminazio horren funtsean aurreiritziak eta ezjakintasuna daude, eta berdintasun printzipioaren aurkakoa da -printzipio horren arabera, pertsona guztiak berdina gara eta eskubide berberak ditugu, gure orientazio sexuala edo genero-identitatea edozein dela ere-.

Egia da azken urteetan aurrerapauso handiak lortu dituztela LGTBI taldeek mendebaldeko herrialde asko eta askotan, berdindu egin baitira zenbait lege eta eskubide. Dena dela, oraindik ere badago zer lortu gizartean, esaterako, orientazio sexualaren ondorioz sortutako indarkeria, munduko hainbat herrialdetan eragiten diena lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualei.

Gaur egun, joera heterosexual, binarista eta heldua posible den arau bakar gisa aurkezten da, eta gainerako aukerak errudun gisa agerrarazten dira. Mendebaldeko sexualitatearen eskuliburua mugatuta dago, beraz, eta onargarritasun soziala, legitimitate morala eta legezko eskubideak galarazten dizkie gainerako sexu praktikei eta identitateei.

Egoera horren ondorioz, LGTBI taldeen barruan ageri-agerikoa da jendaurrean adierazpen afektibo-sexualak egiteko beldurra. Gay, lesbiana, transexual, bisexual eta transgenero eta intesexualek askotan intimitatean eta sekretupean baino ez dituzte egiten adierazpen afektibo-sexualak eta identitatearekin lotutakoak, mendeetan zehar jasandako errepresioaren beldur.

Komunikabideek ezinbesteko garrantzia izan dute LGTBI pertsonen buruzko kontzientzia publikoa sortzeko orduan eta ezinbestekoa ere familia eta bikoteen anistasuna eta horien ereduaren goranzko ikusgarritasuna erakutsi eta islatzeko.

Garai honetan LGTBI pertsonen bizitzari buruzko diskurtsoa gurutzatu egiten da familiari, fedeari, elizari, gerrari, politikari, osasunari, ekonomiari, kirolei, entretenimenduari eta askoz gai gehiagori buruzko estaldurarekin. Horrenbestez,

oraindik beharrezkoa da komunikabideek, edo zehatzago esanda, kazetariak, LGTBI gaien inguruko aurkako ikuspuntuak eta aurreiritzi eta irain iturria izan daitekeen erretorika bereiztea.

Horregatik guztiagatik, uste dugu garrantzitsuak direla bai iritzien trukea bai komunikabideei eskaintzea, legediaren arloko aurrerapenekin batera, LGTBI kolektiboetarako arrakastak agertzeko aukera. Tresna horiek gaiak ikusgai egiten edo modu arduratsuan tratatzen lagunduko dute, herritar batzuen buruan zoritxarrez oraindik bizirik dirauten ideia baztertzaileak eta bitxiak bizirautea eragotzita. Eta tresna horietako bat dekalogo bat izan liteke, horren bidez komunikabideek LGTBI gaiez egiten duten tratamenduak herritarrei ahalbidetuko diela beren ondorioak sortzea, informazio zehatzaren eta testuinguru egokiaren ikuspuntutik, jarrera homofobo, lesfoba eta transfobetatik urrunduta eta oinarritzko giza eskubideen printzipioekin neurri handiagoan bat datozen jarrerak sustatuta.

~~Gaitik~~ko Udalak, beraz, bere barne komunikazio politikan eta baita bestelako komunikabideekin izan ditzakeen harremanetan, bere egiten ditu honako dekalogo honetan jartzen diren irizpideak:

## DEKALOGOIA

- 1.- Komunitatearen giza kapitalaren garrantzia azpimarratu. Haren testigantzari eta esperientziari pentsamendu iraingarriak eta diskriminatzaileak desagerrarazteko analisi gaitasuna eman.*
- 2.- LGTBI kolektiboen bizipenak, beharrianak eta ekarpenak gizartera gehitu, gizarteko kideak diren aldetik, eta elementu horiek zeharkako material bihurtarazi, informazio ildoak prestatzeko orduan.*
- 3.- Osasun, segurtasun eta partaidetza gaiei tratamendu zuzena emateko asmoz herritarren eskubideak aldarrikatu, kolektiboak horiek betetzeko eragile aktibo bihurtzearekin batera.*
- 4.- Komunikabideekiko lankidetzaren sustatu gai guztietan, berariazkoak eta kolektiboetan eurretan oinarritzen direnak barne. Horrela, gizartearen benetako*

*irudia egingo da, eta horrek LGTBI kolektiboaren irudi zehatzagoa ematen lagunduko du.*

*5.- LGTBI kolektiboa heterogeneoa da. Horregatik, komunikabideek estereotipo negatiboak sortzen ez laguntzeko erantzukizuna daukate. Beraz, beharrezkoa izango da iritziak eta adierazpenak zaintzea, gaien ikuspegi orekatua eskaintzeko.*

*6.- Komunikabideak LGTBI elkarte eta kolektiboetarantz hurbiltzen lagundu, gaien eta edukien tratamenduak, terminologia eta ikusgaitasuna adostuta estilo gidaliburua sortzeko asmoz.*

*7.- Komunikabide sozialek homofobia, lesfobia eta transfobiaren aurkako borroka aldarrikatzeko lanean parte hartu behar dute, guztion borroka delakoan, eta, era berean, LGTBI kolektiboek jokabide iraingarriak eta biolentoak desagerrarazteko egiten dituzten balio eta ekintza guztiak hedatu eta horien garrantzia azpimarratu behar dute.*

*8.- Homofobiaren gaitzak edo desinformazioak ukitutako kolektiboek eta pertsonei ahalduntze pertsonaleko prozesuan lagundu, jardunbide egokiak eta herritarrei helarazten zaizkien ereduak ekarrita.*

*9.- LGTBI komunitatea eragile aktiboa izan behar da, informazioa, komunikazioa edo teknologia berriak dakarten arlo guztietan, LGTBI kolektiboen eta komunikabideen artean partaidetza, lankidetzak eta laguntzarako elkarrekiko konpromisoak bultzatuta.*

*10.- Komunikabideek eta erakunde publikoek ez dituzte homofobia eta LGTBI pertsonen eskubideen aurkako gainerako jokabideak segurtasun edo hezkuntza arloko berariazko kontutzat jo behar, eta pertsonen bizitzaren alde guztiak zeharka eta positiboki ukitzen dituzten iritziak eta jokabideak sortzen laguntzen duten eragile bihurtu behar dira.*